

Ordizian, bi mila eta zortziko azaroaren 27an UDALBATZARRAK OHIKO BILERA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta.	EAJ	taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ	taldea
Miren Auzmendi Urkiola	EAJ	taldea
Iban Asenjo Garde	EA	taldea
Belén Maiza Urrestarazu	EA	taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE (PSOE)	taldea
Mikel Leunda Senperena	EB-Berdeak/Aralar	taldea

**BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Manrique Cia	PP	taldea
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar	taldea

**Behin-behineko IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**INTERPRETARIA:**

Garbiñe Mendizabal Mendizabal.



## **BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

Miren Auzmendi 2.puntu joan da bileratik.  
Txurruka jaunak 6.puntu joan da bileratik.

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2008ko urriaren 16ko bilkurako akta onartu.  
..... 3.orr
- 2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Aitorpen  
Instituzionala.  
..... 3.orr
- 3.- Kreditu-transferentzien espedientea.  
..... 3.orr
- 4.- UDALHITZ hitzarmenaren onarpena.  
..... 3.orr
- 5.- Ordiziako Alde Zaharrean trafikoa arautzen duen udal ordenantza aldatzea.  
..... 3.orr
- 6.- Gizarte Ongizate esparruan erakunde eta ekintzak diruz laguntzeko oinarriak.  
..... 3.orr

### **AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

Udal langileak etorri dira, aurretik asanbladan elkartuta egon direlarik.

#### **GALDE-ERREGUAK**

- .- Oiangu Bizirik plataformak aurkeztutako mozioaren gaineko galdera.
  - .- Genero-indarkeriaren aurkako plataforma sortzea.
  - .- Oiangurengo golf-jokoan aritzeko kantzako posteen tratamenduari buruzko galdera.
- ..... 25.orr

#### **ORDUTEGIA:**

HASIERA: 8,10 etan

AMAIERA: 9,30etan



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

### **1.-2008 ko urriaren 16ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

2008ko urriaren 16ko ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Leunda jna.

2008ko uztailaren 29ko aktan eskatu zuen zuzenketa ez dela jaso esan dio Idazkariari, lehen puntuko 4.orrian.

Inoiz ere ez zuen esan Partzuergoan ez sartzearen gaur egungo ondorioei aurre egin beharko liokeela haurtzaindegiak. Baieztapen hori Alejandra Iturriozena izan zela esan du ez berea.

#### Iturriz anderea

Berak erantzun dio, haurtzaindegiko langileek eta Gurasoen Elkarateak izan zirela udaletxeari eskatu zietenak Partzuergoan sartu ez izatea.

Idazkariak berriro zuzendu du.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 10 (EAJ 4, EA 2, PSE-EE/PSOE 3,EB-Berdeak/Aralar 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (EAJ. Miren Auzmendi ez zelako bilkuran egon)



Beraz Alkate jaunak akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Aitorpen Instituzionala.**

### Proposamena

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, (Ordiziako)ko Udalak jakinarazi nahi du indarkeria matxistak eragindako Gaitz sozialaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa duela.

Gai honen inguruan antolatuko diren ekintzak emakumeen babesa eta autonomia bermatzera egon behar dira zuzenduta, indarkeria mota honen biktima nagusiak emakumeak baitira.

Dena dela, emakumeenganako indarkeria ez da ulertu behar "emakumeen" arazo legez, baizik eta kultura maskulino-patriarkalak eragindako desberdintasunaren adierazgarri nagusitzat; izan ere, kultura horrek indarkeria mota hau eragin eta toleratzen du, eta gauza bera gertatzen da era desberdinetan eta esparru desberdinetan indarkeria hori gauzatzen dutenekin ere.

Beraz, alde batetik, arau horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean oinarritutako kultura baterantz bideratu behar dira; eta, bestetik, gizonak estrategia horietan sartu behar dira, indarkeria mota oro desagerrarazteko borrokan emakumeekin batera aktiboki kolaboratzera konprometituaziz.

Honela eta, Udal honek ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko. Udal politika horren barruan, beste tresna batzuen artean, indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako tokiko protokoloa sartu behar da.

Aurten, DEI BEREZIA EGITEN DIEGU herriko gizonari, batetik, emakumeenganako indarkeriaren aurkako konpromiso aktiboa onar dezaten, eta, bestetik, gaur egun oraindik gizartean hedatuta dauden jarrera eta mentalitate sexistak zalantzan jartzeko.

Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki gizonari, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soil.



## Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

### Leunda jna.

Berriro ere galdetu du ea zergatik ekartzen diren plenora eztabaidatzeko gobernu-taldeak proposatzen dituen mozioak edo aldarrikapen instituzionalak eta beraiek aurkezten dituzten mozioak ez dakit ze irizpideen ondorioz, eztabaidatzen dira ala ez.

Emandako erantzunak ez du konbentzitzen: Tokiko Gobernu Batzordean eztabaidatu behar dira, herriarekin zuzeneko zerikusia duten mozioak bakarrik eztabaidatzea du zentzua, ez du ezertarako balio plenoan eztabaidatzea...eta abar.

Leunda jaunak badaki gehiengoa dutela, baina balienteak izan eta galderari erantzun argia eman beharko liekeela uste du eta, batez ere, jolas ez egin.

Orain bi pleno mozio bat eztabaidatzeko eskatu zuela esan du eta ez zela sartu.

Bere taldeak aurkeztutako hainbat mozio aipatu ditu, orain arte eztabaidatu ez direnak.

Beste behin, gobernu taldeak Eguneko Aztergaietan sartu du aitorpen hori, hala erabaki duelako.

### Alkate jna.

Politikaren gaia eguneroko lan arruntetik eta Udal gestiotik apartatu nahi duela esaten duela beti erantzun dio, eta eztabaida politikoetarako foroa ez dela plenoa.

Plenoan gaur eztabaidatzen den Aitorpena oso garrantzitsua da, historikoaz gain.

### Leunda jna.

Oiangurengo golf-zelaiari buruzko mozioa politikoa den galdetu du.

### Dubreuil jna.

Leunda jaunak erantzun dio gobernu-taldean adosten diren mozioak plenora pasako direla eta adosten ez direnak ez.

### Leunda jna.

Argitasuna eta zintzotasuna eskertu dio.



### Maiza anderea

Eztabaida hau behin baino gehiagotan sortu dela erantzun dio Leunda jaunari eta argi dagoela, baita, hainbat gairi buruz modu diferentean pentsatzen dutela, et anormala dela horrela izatea, bestela denak zaku berean egongo liratekeela.

### Leunda jna.

Eztabaida hori berak pertsonalki ateratzen duela esan du, plenora mozioak ekartzen dituztenean eta kontuan hartzen ez direnean.

### Asenjo jna.

Leunda jaunari esan dio beraiek ez diotela beldurrik eztabaidari, hori bai, bere taldeak atera behar diren gaiei ematen dietela lehentasuna, Udalarekin zerikusia duten gaiei.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 3, EA 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Leunda jaunak ez du bere bota eman protesta gisan.

**Beraz Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- Kreditu-transferentzien espedientea.**

#### Proposamena

Aurrekontuaren exekuzioa ezarritako kredituetara egokitzen aztertzeari ekin zaio.

Partida batzuetan, hainbat gastu-mota hartzen dituztelako, kreditu gehiago behar da aurtun.



Beste batzuk, berriz, aurrekontu-kreditua zegoen ala ez kontuan hartu gabe hartutako erabakiei esker egin dira.

Aurrekontuaren oreka berreskuratzea nahi du espediente honek.

Kreditu igoera horiek finantzatzeko Majori Kiroldagirentzako ekarpeneko partidan dagoen soberakinarekin segitzen dugu.

AKORDIO PROIEKTUA.

Kreditu-transferentzien 9.espedientea onartu, guztira 94.887,00 euro, eta erabaki honi atxikitako xehetasunaren arabera.

### KREDITU-IGOERA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
933.010.00.01	Kreditu-amortizazioa	5.200,00
213.111.00.01	Ibilgailuen mantenua	160,00
222.111.00.01	Telefonoa. Gobernu organoak.	500,00
224.111.00.02	Eginkizun anitzeko motorraren aseguruua	235,00
226.111.00.03	Ordizia herriaren propaganda	10.000,00
226.111.00.98	Nahi gabeko gastuak	10.000,00
226.111.00.99	Hainbat gastu	8.000,00
622.111.00.02	Bulego berriak egokitu	10.000,00
226.121.00.04.2006	Aholkularitza juridikoa	1.152,00
220.121.00.02	Liburuak erosteko	1.000,00
226.121.00.98	Hainbat gastu	700,00
227.121.00.04	Zerbitzuen kontratua.	400,00
622.222.11.01	Bonberia zaharra berritzea	150,00
227.413.30.01	Komunen garbitasuna	2.700,00
221.442.20.04	Kale garbitasuneko erregaia.	4.200,00
221.442.20.99	Kale garbitasunerako material berezia.	1.500,00
481.451.10.01	Kultur erakundeetara transferentziak	4.450,00
623.451.10.04	Kulturako lanabesak	750,00
431.451.20.01	Herri Antzokiari ekarpena	18.000,00
629.454.11.01	Danborradako arropak	4.000,00
623.454.12.04	Lanabesak	270,00
481.469.10.01	Gazteriako transferentziak	870,00
210.511.00.01	Kaleak mantentzeko.	10.000,00



471.521.00.01	Goierrri Telebistari diru laguntza	650,00
		<b>94.887,00</b>

### KREDITU-GUTXITZEA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
332.010.00.01	Mailegu-interesak	11.000,00
431.452.20.01	Majori Kiroldegiari ekarpena	83.887,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>94.887,00</b>

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkate jna.

Proposatutako transferentzien espedientean aldaketa txiki bat dagoela esan du, haurtzaindegia 73.000.-€ko mailegua emateko igoera bat proposatzea, alegia, langileen soldatak ordaintzeko.

#### Proposamena

Aurrekontuaren exekuzioa ezarritako kredituetara egokitzen aztertzeari ekin zaio.

Partida batzuetan, hainbat gastu-mota hartzen dituztelako, kreditu gehiago behar da aurten.

Beste batzuk, berriz, aurrekontu-kreditua zegoen ala ez kontuan hartu gabe hartutako erabakiei esker egin dira.

Aurrekontuaren oreka berreskuratzea nahi du espediente honek.

Kreditu igoera horiek finantzatzeko Majori Kiroldegirentzako ekarpeneko partidan dagoen soberakinarekin segitzen dugu.

AKORDIO PROIEKTUA.

**Kreditu-transferentzien 9.espedientea onartu, guztira 94.887,00 euro, eta erabaki honi atxikitako xehetasunaren arabera.**





## KREDITU-IGOERA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
933.010.00.01	Kreditu-amortizazioa	5.200,00
213.111.00.01	Ibilgailuen mantenua	160,00
222.111.00.01	Telefonoa. Gobernu organoak.	500,00
224.111.00.02	Eginkizun anitzeko motorraren aseguruua	235,00
226.111.00.03	Ordizia herriaren propaganda	10.000,00
226.111.00.98	Nahi gabeko gastuak	10.000,00
226.111.00.99	Hainbat gastu	8.000,00
622.111.00.02	Bulego berriak egokitu	10.000,00
226.121.00.04.2006	Aholkularitza juridikoa	1.152,00
220.121.00.02	Liburuak erosteko	1.000,00
226.121.00.98	Hainbat gastu	700,00
227.121.00.04	Zerbitzuen kontratua.	400,00
622.222.11.01	Bonberia zaharra berritzea	150,00
227.413.30.01	Komunen garbitasuna	2.700,00
823.421.00.02	Aurtzaindegiko prestamoa	73.000,00
221.442.20.04	Kale garbitasuneko erregaia.	4.200,00
221.442.20.99	Kale garbitasunerako material berezia.	1.500,00
481.451.10.01	Kultur erakundeetara transferentziak	4.450,00
623.451.10.04	Kulturako lanabesak	750,00
431.451.20.01	Herri Antzokiari ekarpena	18.000,00
629.454.11.01	Danborradako arropak	4.000,00
623.454.12.04	Lanabesak	270,00
481.469.10.01	Gazteriako transferentziak	870,00
210.511.00.01	Kaleak mantentzeko.	10.000,00
471.521.00.01	Goierri Telebistari diru laguntza	650,00
		<b>167.887,000</b>

## KREDITU-GUTXITZEA

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
332.010.00.01	Mailegu-interesak	11.000,00
431.452.20.01	Majori Kiroldegiari ekarpena	156.887,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>167.887,00</b>



## Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, PSE-EE/PSOE 3, EA 2)

Aurkakoak: 1 (EB-Berdeak/Aralar 1)

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien laugarren berri eman du:

### **4.- UDALHITZ hitzarmenaren onarpena.**

#### Proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenaren ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkartei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekariekin negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoan artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkarte, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezzen.



Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia ikusirik, Ordiziako Udalak honako akordioak honartzen ditu:

### **LEHENENGO**

Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkarien artean.

### **BIGARREN**

Ordiziako Udaleko Langileei aurretik aitortutako baldintza onuragarriagoak mantentzea.

### **HIRUGARREN**

Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Alkate jna.

Puntua mahai gainean uztea proposatu behar duela esna du, hurrengo Osoko Bilkuran onartzeko.

Gobernu taldeak Udalhitzeko baldintzak aztertzeke denbora gehiago nahi duela esan du, baita Langileen Batzordearekin eztabaidatzeko Gobernu Batzordeak egin dituen beste proposamen batzuk aztertzeke.

#### Balluerka jna.

Langileen ordezkaritzan hitz batzuk azaldu ditu: Udalhitz Administrazioiko langile guztien hitzarmena da, eta Alkatearen esanetan, ez da onartu behar.

#### Alkate jna.

Gobernu Batzordeko kideekin egindako bileraren ondoren, atzo, asteazkena, azaroak 26, eta langileen ordezkariekin hitz eman bezala, Batzordearen erabakiaren berri eman ziola.



### Balluerka jna.

Gaiaz pentsatzeko denbora pasa dela erantzun dio, abenduan gaudela eta Hitzarmena ez dela oraindik ere onartu.

Hitzarmena zergatik ez den onartu nahi galdetu dute langile batzuk, Eguneko Aztergaietan sartu eta gero, gainera.

### Asenjo jna.

EAK, alderdi bezala, eskatu zaionean bere iritzia azaldu duela esan du. Puntua mahai gainean uztea ez dela inolako presiorik esan du, denbora pixka bat gehiago behar dutela bakarrik.

Ezin zaio Udalari erabakiaren zehaztasuna eskatu, EUDELen, bai Eak, baita PSOEK erabakiaren aurkako botoa eman dutenean.

### Maiza anderea

Berak esan du ez duela inoiz langileekin bilera egiteko ukatu, EUDELen erabakiaren aurkako botoa eman arren. Beti esan dute, herri mailan, udal maila, ez dutela erabakia zapuztuko eta, beraiek, abstentzioaren alde egingo dutela.

Maiza andereak uste du Udalhitzez gain, Gobernu Batzordeak proposamen batzuk egin dituela.

Langileen Batzordearekin horri buruzko bilera egin dutela, baina ez zela ezertan geratu.

Aldi berean uste du, denbora faltagatik eta Urdanetaren V.Mendeurrenarengatik, esfortzu handia egitea eskatu dielako, agian, ez dela gaia behar adina landu. Gainera, gai korapilatsua dela pentsatzen du eta uste du proposamenak lantzeko denbora gehiago behar dela.

### Dubreuil jna.

Berak esan du, 2009ko tasak onartzeko zain egon dela, kontuak egokitzeko.

### Asenjo jna.

Udalhitz onartu egingo dela esan du, gaiaz pentsatu eta hitz egiteko denbora behar du.

### Alkate jna.

Gaia mahai gainean uztea proposatu du.



## Bozketa

Puntua eguneko aztergaietatik kanpo uztea bozkatu da.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 1 (EB/Berdeak/Aralar)

Abstentzia: 0

**Ondorioz, aurkeztutako puntua aztergaietatik kanpo uztea aitortu du.**



Ondoren Alkate jaunak eguneko aztergaien bosgarren berri eman du:

### **5.- Ordiziako Alde Zaharrear trafikoa arautzen duen udal ordenantza aldatzea.**

#### Proposamena

2008ko irailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Alde Zaharrear trafikoa arautzen duen udal ordenantza, 2008ko ekaineko Osoko Bilkuran erabakitako aldaketak indarrean sartzeko behar den tramitea betez.

Toki Jaurbidearen Oinarrien 56 eta 64 artikuluen arabeko eskumenaz baliatuz, Eusko Jaurlaritzako Toki Jaurbidearen Zuzendaritzak Ordenantza horretan aurkitu dituen hainbat irregulartasunen gaineko informazioa eskatu du.

Irregulartasun horiek ez dira 2008ko ekaineko Osoko Bilkurako erabaki bidez aldatutako atalei dagozkienak, 1999ko irailetik Ordenantzarenak diren aginduei buruzkoak baizik, urte horretan sartu baitzen indarrean lehen aldiz, eta 2003an Toki Jaurbidearen legeari emandako idazkera berriarekikoak dira, oinarritzko lege hori errespetatu behar bait dute herrietako ordenantza zigortzaileek, baita azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak indargabetutako urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua.

Toki Araubideko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bateginaren 56. artikulua esaten duenez, Ordenantzak onartzeko bete behar diren xedapen berak bete behar dira horiek aldatzeko.

Hortaz, honako prozedura jarraitu behar da:

- a) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- b) Jendaurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxienerako epean.



- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Toki Jaurbidearen Zuzendaritzak egindako aholkuei segituz, eta 2008ko urriaren 15eko Zerbitzu Delegazioaren aldeko irizpenekin eta 2008ko azaroaren 19ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako honen proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Honako aldaketak egitea Ordiziako Hiri Zaharrean Trafikoa Arautzen duen Ordenantzan.

1) 12. artikulua.- Zigorrak

- 2. puntua: Honako hau kendu: *“eta/edo udal baimena behin-behinekoa bada, behin-betirako kenduz; udal baimena betirako denean, udal baimena urtebeterako kendu daiteke”.*
- 3.puntua: Honako hau kendu: *“eta/edo udal baimena behin betirako kendu”.*

2) 7.artikulua. Baimenak:

Azken tokian honako atala sartu: *“Ordenantza honen arau-hauste larri edo oso larriagatik ebazpen tinko bidez zigortutako pertsoneri baimen horiek ezeztatu egingo dizkio Udalak.”*

3) 13.artikulua. Prozedura zigortzailea:

- 5.puntua: honako atal hauek ezabatu: *“ Ordenantza honen aurkako arau-hausteak zigortzeko ekintza hiru hilabeteren buruan preskribituko da, gertaerak izan eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Administrazioaren edozein ekintzak etengo du preskripzio hori, betiere salatuak jakiten duenean, edo bere identitate edo helbidea jakiteko zuzendua bada, edo 30/92 Legean ezarritakoaren arabera egindako jakinarazpenez.*

*Behin zigorrek irmotasuna bereganatzen dutenean, urtebeteren buruan preskribituko dira; preskripzio hori bere exekuziora bideratutako ekintzengatik bakarrik etengo da.*

Eta hau jarri bere ordeaz:

*“Azaroaren 26ko Herri Administrazioen eta Jardunbide Administrazio Arruntaren 30/1992 Legeko 38.132 artikuluan ezarritako moduan preskribitzen dira arau-hauste eta zigorrak”.*

4) 13.artikulua (14.artikulua errealtatean). Araubide Juridiko aplikagarria:



Honako hau ordezkatu: *"urtarrilaren 17ko 13/92 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioaren Araudia"* honako hau emanez: *"azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua"*.

2.- Ordenantzaren aldaketak jendaurrera jarri beharko dira 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Asenjo jna.

Ordenantzan onartu eta Eusko Jaurlaritzako Toki Errejimeneko Zuzendaritzak egindako alegazioen berri eman du, ordenantzako hainbat artikulua ez zirela zuzenbidekoak esanez. Egokitu beharreko artikulua ordenantza zaharretik datozela esan du. Horiek egokitu dira eta, orain, legezko prozedurarekin segitu behar da, aldaketa horren behin betiko onarpena arte.

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 1 (EB/Berdeak/Aralar)

**Ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat aitortu du Lehendakariak.**



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

## **6.- Gizarte Ongizate esparruan erakunde eta ekintzak diruz laguntzeko oinarriak.**

### Proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko legediak finkatzen duenaren arabera eskumena dute toki-entitateek gizarte zerbitzuak eskaintzerakoan.

Herri Korporazioetako Zerbitzuen Araudiko 23.artikuluaren arabera, herri-eskumenekoak diren zerbitzu edo ekintzak osatu edo ordeztu ditzaketen erakunde, organo edo partikularrei eman dakieke horiek diru laguntzak.

Diru laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hori garatzeko Araudian (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) ezartzen da diru laguntza horien araubide juridikoa.

Lege horretako 8.artikuluaren arabera, toki-administrazioek, diru laguntzak ezarri baino lehen, hori aplikatzerakoan lortu nahi dituen helburu eta ondorioak zehaztu beharko dituzte plan estrategiko batean.

Diru laguntzen kudeaketa honako printzipio hauen arabera egingo da: publikitatea, gardentasuna, lehia, objektibitatea, berdintasuna eta ez bazterketa; Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzerakoan efikazia; eta herri baliabideak eman eta erabiltzerakoan eraginkortasuna.

Ordenantza bidez (17.arti) onartuko dira diru laguntzen arauak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira (9.4.arti).

Aipatu Legearen 22. 2 d) artikuluaren arabera, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

49. artikulua esaten duena aintzat hartuta, honako prozedura jarraituta onartuko dira Ordenantzak:

- d) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- e) Jendaurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxieneko epean.
- f) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Behin ordenantza indarrean sartzen denean, diru laguntzak emateko prozedura deialdi bidez hasiko da, Dekretu bidez onartuko dena, eta horrekin batera gastuaren onarpena egin beharko da (23 eta 34 arti).

2008ko azaroaren 19an Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA.





1.- Gizarte ongizate eremuko eskumen-esparruan programak eta ekintzak garatzen dituzten erakundeei diru laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena

2.- Ordenantza hori jendaurrera jarri beharko da berriro ere 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantzak behin betiko onartutzat joko lirateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

#### Dubreuil jna.

Laguntzak zertan diren azaldu du labur labur, Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumo Sailaren eremu barruan hainbat sektore nabarmenduz.

Ordenantzaren 2.puntuan "Onuradunak" izenekoan, lehen atala sartzea erabaki da, hitzez hitz hau dioena: "Diru laguntzaren helburu diren proposamenek Euskararen Udal Ordenantza bete beharko du, baita gainerako udal ordenantzak ere".

**Puntu honetan Txurruka jaunak bilera utzi zu.**

### Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Alkateak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (PSE-EE (PSOE) 3,EA 2,PNV 2,EB-berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat aitortu du Lehendakariak.**



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

## **7.- Galde-eskariak**

Leunda jaunak Oiangu Bizirik plataformak.Osoko Bilkuran sartzeko mozioa aipatu du.

.....

Dubreuil jaunak esan du abenduaren 3 eta 4an Ordizian hainbat topaketa egingo direla, genero-indarkeriaren aurka Ordiziako gizezkoen plataforma sortzeko. Chillida museoko zuzendaria etorriko da.

Manifestuaren funtsezko puntuak azaldu ditu labur labur.

.....

Uranga jaunak, Oiangu Plataforma Bizirik izenean, galdetu du ea zer egin behar den Oianguko praktiketako kantzako egurrezko posteekin, kreosota dutela eta hori debekatutako substantzia toxikoa dela.

Alkateak erantzun dio.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

